LEIOAKO KLIMA-BABES SAREA: KLIMA-EGOKITZAPENA ETA BIZTANLERIAREN ONGIZATEA HOBETEZEKO HIRI-AZPIEGITURA

Posted on 15/04/2026 by Naider

Leioako Udalak **udal klima-babes sare** bat diseinatzen du, muturreko tenperaturen igoeraren eta horiek biztanleriaren osasunean eta ongizatean dituzten ondorioen aurrean udalerriak duen egokitzapen-gaitasuna indartzeko.

Proiektua **konfort termikoa eta klima-babesa eskain** ditzaketen hiri-guneak identifikatzeko beharretik abiatzen da, batez ere kolektibo kalteberenentzat. Ekimenak barne-babesguneak —ekipamendu publiko irisgarri eta egokituak— eta **itzal, landaretza eta egonaldi baldintza oneko kanpo-guneak** hartzen ditu kontuan.

NAIDERek Udala laguntzen du **udalerriaren lurralde eta klima-analisian**, irizpide tekniko zehatzen definizioan eta Leioako hiri eta gizarte ezaugarrietara egokitutako sare integratu baten diseinuan. Lanak informazio espaziala, ingurumen-aldagaiak eta irisgarritasun-irizpideak uztartzen ditu **lehentasunezko jarduketa-guneak identifikatzeko** eta lurraldearen estaldura orekatua bermatzeko.

Proposamenak **egokitzapen urbanoaren ikuspegi transbertsal** bat txertatzen du: klima-babesguneak ez dira soilik muturreko episodioen aurreko erantzun-guneak, baita ingurumen-kalitatea, espazio publikoaren erabilera eta **epe luzeko hiri-erresilientzia** hobetzen laguntzen duten elementuak ere. Proiektuak klima-egokitzapena udal-plangintzan eta tokiko hiri-politiketan integratzen aurrera egiten du, udalerria gero eta maizago eta intentsitate handiagoz gertatzen diren klima-eszenatokien aurrean prestatuz.

Azgazkia: Pinasolo parkea, Leioako udala